



Andoingo Udala

2022UDOS0011

## Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2022/09/29

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 29/09/2022

### Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

#### Bildutakoak: / Asistentes:

**Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz

#### Zinegotziak: / Concejales:

#### EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete  
Jon Zulueta Berastegi  
Garazi Usandizaga Zubiria  
Julian López Aracama  
M<sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun  
Xabier Fondón Pajares

#### PSE-EE

Ascensión Parrón Peguero  
Petra Romero Pozo

#### EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta  
Alexander Huitzi Alfonso  
M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández  
Imanol Goenaga Egibar

#### Elkarrekin Podemos

M<sup>a</sup> Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia

**0000011**

Eguna

**2022/09/29**

Hasiera

**19:30**

Amaiera

**21:05**

#### Idazkaria:

María Uriarte  
Zurikaral

#### Kontuhartzailea

Myriam Lizaso  
Arruabarrena

#### Interpretaria

Jon Unanue Lopez

#### Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Estibalitz Mujika Tolaretxipi

**EH Bildu**

José Luis Verdasco Gutiérrez

**PSE-EE**

Oscar Mendo González

**PSE-EE**

### Gai Zerrenda:

- 2022/06/30, 2022/07/12 eta 2022/07/21ean egindako batzarren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

#### Xedapenak

- 2022/7 kreditu aldaketaren espedientearen proposamena.
- 2022.03.31 eta 2022.06.30 daten kontuhartzaitzaren txostenak.
- Lanpostuen balorazioa: Langileek aurkeztutako berrikusteko helegiteei erantzuna ematea.
- Lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena.
- Telelanaren araudia hasierako izaeraz onartzea.

### Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 2022/06/30, 2022/07/12 y 21/07/2022.

#### Parte Dispositiva

- Propuesta expediente modificativo de crédito 7/2022.
- Informes de intervención a fechas 31.03.20212 y 30.06.2022.
- Valoración de puestos de trabajo: Contestación a los recursos de reposición presentados por las personas trabajadoras.
- Propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.
- Aprobación inicial del Reglamento de teletrabajo.



**Kontrola**

- 7. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1260 zenbakidunetik 1700 zenbakidunera.
- 8. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 7.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1260 y la nº 1700.
- 8.- Ruegos, preguntas y propuestas.

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte, 2022ko irailaren 29ko pleno honetara.

“Muy buenas tardes a todas y a todos, bienvenidos seais al pleno del 29 de setiembre de 2022.

“Hasiera eman aurretik, komentatzea, Verdasco jauna eta Mendo jauna, zinegotziak, bajan daudela eta beraien bozka Romero andrearengan eskuordetzen dituzte.

Idazkariak jakinarazten dio eskuordetzea bakarrik Verdasco jaunak aurkeztu duela, ez, berriz, Mendo jaunak eta zinegotzi batek ezin duela izan boto ordezkatu bat baino genhiago.

“Komentatu nizun, hori jada ez dakit. Galtzen naiz. Hori komentatu nizun, baino bueno.”

Idazkariak esaten dio berak uste zuela plenora etorriko zela.

“Bajan dago, nola etorriko da.

“Hau esanda, hasiera emango diogu udalbatzarrari.”

Idazkari andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Udalbatzarra streaming bidez zabaltzen ari da eta jendaurreko norbaitek hitza hartzen badu jakin dezan.”

**1. 2022/06/30, 2022/07/12 eta 2022/07/21ean egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2022/06/30, 2022/07/12 eta 2022/07/21 datetako batzarraldiei dagozkien aktak aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman dira.

**2. 2022/7 kreditu aldaketaren espedientearen proposamena.**

“Kreditu transferentzien (Sarekon 2022-KALD-000009), kreditu gaituntzen (Sarekon 2022-KALD-000010) eta kreditu gehigarrien (Sarekon 2022-KALD-000011) bidezko kreditu aldaketaren 2022/07 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:

- Lanbideko Ebazpena (dirulaguntza onartzen-“proyecto de formación y empleo en muralismo”)
- Hezkuntza eta Kultura Batzorde Informatzaileak 2022.09.07an emandako aldeko proposamena (Bai:PSE-EE eta EAJ-PNV; Ez:EH-Bildu eta Elkarrekin Podemos)
- Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen Lehendakariak emandako proposamena
- Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen Lehendakariak emandako proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022/07 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu transferentzien, gaituntzen eta gehigarrien modalitatekoak.

Kontuhartzaileak informatzen du txostenik ez daudela, proposamena Ogasun Batzordean bertan egin delako.

Hala ere, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/09/20ko bileran, aldeko irizpena eman du.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan komentatzea 2002ko zazpigarren espedientea dela eta hiru zatitan banatuta dagoela. Batetik, kreditu transferentziak, 17.800 eurokoa eta izango lirateke \_ al programa intergeneracional \_



aurrekontu partehartzaitetik datorrena.

“Por un lado estaría la primera parte, que es la transferencia de créditos por importe de 17.800 euros para el programa intergeneracional dentro de los presupuestos participativos.

“Bigarren zatia. Kreditu Gaikuntza izango litzateke, kasu honetan dirusarrerak eta gastuak txertatzen dira eta 123.000 euro izango lirateke, Lanbidetik datorren programa batetik, hain zuzen ere, Auzolan programa.

“La segunda parte es la habilitación de crédito que conlleva la inclusión de una partida de entrada y una de gasto, para el programa de Lanbide Auzolan, por importe de 123.000 euros.

“Hirugarren zatia, kreditu gehigarriak izango lirateke, hauek gerakinetik hartzen dira eta 131.500€ euros izango lirateke. Batetik, 23.000€ ondarearen dinamizazioan. 25.000€ kultur ekintzak ekintzan, 15.000€ Plazaolako drenagean, 50.000€ Auzokalteko tunela birgaitzeko eta 18.500€ informazio panelak erosteko.

“La tercera parte sería para los créditos adicionales que ese cogeria del remanente por importe de 131.500 euros. Por un lado, dinamización del patrimonio, 23.000€. Kultur Ekintzak, 25.000€, el drenaje de Plazaola 15.000€, reparación del túnel de Auzokalte 50.000€ y a adquisición de paneles informativos 18.500€.

“Hau da eztabaidara jartzen dena.”

Alkate andreak gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Besterik gabe, bai ogasuneko batzordean eta beste batzorde ezberdinetan adierazi dugun bezala, hauetako batzuekin alde gaude, beste batzuen aurka eta beste batzuekin abstenitu egin ginen eta ondorioz gure bozka abstentzioa izango da.”

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Dena den, nahi duzue banan-bana bozkatzea? Ez. Bueno.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“También algunas cosas nuestro grupo está de acuerdo, en otras estamos totalmente en contra, por lo que vamos a votar en contra.”

Alkate andreak dio:

“Azaldu nahi duzue zertan zauden kontra?”

Santana andreak dio:

“Estamos a favor de las cosas que no tienen otro sentido que hacerlas, como son reparaciones, como son los paneles, con todo eso estamos a favor, pero con el modificativo de crédito de Cultura, por ejemplo, estamos en contra y dado que se va a votar todo en conjunto, vamos a votar en contra.”

Alkate andreak dio:

“Esan bezala, bozkatu dezakegu banan-banan, gure aldetik ez dago eragozpenik, nahiago baduzue. Hiru zatitan bozkatzen dugu? Banan-bana joango naiz azentzen orduan.”

Beste parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak lehen atala, kreditu transferentzia, hau da, \_programa intergeneracional\_ proposamena, bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Jarraian, bigarren atala, kreditu gaikuntza proposamena, hau da, Lanbideko Auzolagun programa, bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Jarraian, Alkate andreak hirugarren atala bi zatitan bozkatzera jarri du eta ondorioz, lehen zatia, Kultura arloari dagokiona, zehazki ondare dinamizazio eta kultur ekintzak, Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andreak eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, onartu du.

Jarraian, Alkate andreak, hirugarren atalaren bigarren zatia, Zerbitzuetako arloari dagokion proposamena, hau da, Plazaolako drenajea, Auzokalteko tunela birgaitzea eta informazio panelen erosteta, bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeetako zinegotzien abstentzioarekin, onartu du.



Beraz, jaso diren bozkak direla medio, Osoko Udalbatzak, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022/07 espedientea, kreditu transferentziaren (2022-KALD-000009-00), gaikuntzaren (2022-KALD-000010) eta gehigarrien (2022-KALD-000011-00) modalitatekoak, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU TRANSFERENTZIAK**  
Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	20.000,00	17.800,00	2.200,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>20.000,00</b>	<b>17.800,00</b>	<b>2.200,00</b>

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETAR ZERBITZUETAN	0,00	17.800,00	17.800,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>17.800,00</b>	<b>17.800,00</b>

**KREDITU GAIKUNTZA**

**GASTUAK**

Kap.	Izena	Euroak
1	PERTSONAL GASTUAK	75.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	48.000,00
	<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>123.000,00</b>

**SARRERAK**

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	123.000,00
	<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>	<b>123.000,00</b>

**KREDITU GEHIGARRIAK**

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETAR ZERBITZUETAN	48.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	83.500,00
	<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>131.500,00</b>

**FINANTZAKETA**



Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	131.500,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>131.500,00</b>

**Bigarrena.-** Jendurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

### 3. 2022.03.31 eta 2022.06.30 daten kontu-hartzailetzaren txostenak.

Se da cuenta de los informes emitidos con fechas 31.03.2022 y 30.06.2022 por la Interventora relativos al cumplimiento de los plazos de pago de las operaciones comerciales.

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Bueno dakizuen bezala, legeak dionaren arabera, hiru hilabeteen behin azaldu behar zenbat faktura dauden ordaindu gabe.

“Como marca la ley, trimestralmente tenemos que dar a conocer las facturas que el ayuntamiento no ha pagado.

“Orduan 2012ko martxoaren 31ean, 1.081.758,94 euro izango liritezke eta ekainaren 30ean 1.361.850,10 euro.

“Decíamos que a 31 de marzo de 2022, la cifra sería de 1.081.758,94 euros y a 30 de junio de 2022, 1.361.850,10 euros.

“Hemen bai aipatzea, ogasun sailean esfortzu bat egiten ari dira, batez ere, fakturak gero eta lehenago ordaintzeko eta alde horretatik saiatzten ari gara epeak murrizten.

“Decía que, desde el departamento de hacienda se está intentando, con la colaboración del resto de departamentos, bajar el plazo del abono de las facturas y en ese sentido estamos mejorando.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

### 4. Lanpostuen balorazioa: Langileek aurkeztutako berrikusteko helegiteei erantzuna ematea.

Ikusirik udalbatzak lanpostu batzuk sortzea eta LPZn sartzearabaki zuen. Erabaki hori 2018ko urtarrilaren 25ean hartu zen, eta bertan ezartzen zen udaleko lanpostu guztiak baloratuko zirela.

Ikusirik 2018ko abenduaren 5ean, Udaleko lanpostuen balorazioa egiteko eta lanpostuen katalogoa eguneratzeko zerbitzua emateko kontratua esleitu zitzaion RRV Asesores, Rodríguez Viñals, SLri, alkatetzaren 793/2018 ebazpenaren bidez.

Ikusirik kontratu hori esleitzeko baldintza teknikoan agiriak adierazten zuen balorazio-mahai bat eratu beharko zela, udalaren eta langileen ordezkarien parte-hartzearekin.

Kontuan izanda balorazio-mahai hori hainbat aldiz bildu da, eta enpresa esleipendunak landutako dokumentazioa eta sindikatuak eta alderdi politikoak aurkeztutako proposamenak aztertu dira.

Kontuan izanda azken balorazio-mahaian, 2022ko ekainaren 17an, lanpostuen balorazioa onartzeko erabakia hartu zen, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin.

Ikusirik horren ondorioz, 2022ko uztailaren 21ean korporazioko osoko bilkurak lanpostuen balorazioa egitea erabaki zuen. Erabaki hori langileei jakinarazi zitzaizen, eta hauetatik berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuten: Joxe Mendizabal Jauregi, Jesús Pérez de Albeniz Murgiondo, Ramón Varela López, Ana Maite Eceiza Olazabal, Miren Garbiñe Ochandorena Alcorta, Bakarne Lasarte Audinaka, Nagore Echave Basurto, Alexia Oliden Albeniz, Naiara Marqués Astibia, Mirari Iradi Tejería, Nahikari López de Zubiri Gastesi, Oihane Arregi San Miguel, Eider Luis Aranburu, Juan Mari Zalaba Huici, Laura Santos Jauregi, Lucila Casco Costa, Josune Larreta Muguerza, Katrin Iturralde Izuzkiza, Sagrario Castro Ikutza, Oiane Perea Aguirre, Cristina Muñoz Moure, Iosune Marin Asensio, Karmele Otaegi Negredo, Elixabete Otaño Zubeldia, Saioa Albeniz Otegi, Maria Nerea Yurrebaso Olabarrieta, Maria Luisa Iparragirre Santo Tomas,



Maria Victoria Olano Ocariz, Maria ARanzazu Itxaso Manterola, Hilario Dorronsoro Alustiza, Mirari Irurzun Elizegi, Elena Gorrotxategi Iparragirre, Ane Urbizu Arizcorreta, Maria Aranzazu Alcorta Echave, Igor Ruiz Mateo, Amaia Pollo González, Alberto Gil Mosquera (en nombre y representación de varios/as empleados/as de limpieza viaria), Mikel Emezabal Miangolarra, Myriam Ulanga Elorz, Irene Jauregi Zubeldia, Lurdes Loiarde Txintxurreta, Ane Miren Arando Ugartetxea, Amaia Huici Sanz, Ana Isabel Sánchez Cuesta, Jone Miren Iturrioz Olo, Eva Millares Costa, Maria Begoña Aguirresarobe Galarza, Xabier Oyarzun Labayen, Rosa María Hernández Lozano, Julen Barinaga Azanza, Andoni Azpillaga Isasa, Leire Rodríguez Lasarte, Maria Begoña Arregui Pagola, Laura Landa Calvo, Marta Truchuelo García y Miren Edurne Ustaritz Goikoetxea.

Ikusirik Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2022ko irailaren 20an emandako txostena.

2022ko irailaren 20an balorazio mahaia elkartu dela ikusirik.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2022ko irailaren 23ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, proposamena edo irizpena, lau zatitan banatuta dago. Batetik, aurkeztutako berraztertze errekurtso guztiak tramitera onartzea, epe barruan aurkeztu baitira.

“El dictamen está dividido en cuatro partes, el primero sería, admitir a trámite todos los recursos de reposición presentados, ya que los mismos han sido presentados en plazo.

“Bigarrenik, Joxe Mendizabal Jauregi eta Jesús Pérez de Albeniz Murguialday jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsoak onestea, txosten teknikoan arrazoitua.

“Segundo, estimar los recursos de reposición presentados, por los motivos recogidos en el informe técnico, de Joxe Mendizabal Jauregi y Jesús Pérez de Albeniz Murguialday.

“Higurrena, aurkeztutako berraztertze errekurtsoak ezezte, txosten teknikoan eta balorazio mahaiaren aktan jasotako arrazoiengatik, eta kasu honetan langile askoren izenak daude, zerrenda luzea delako.

“El tercer punto sería, desestimar los recursos de reposición presentados por los motivos recogidos en el informe técnico y en el acta de la mesa de valoración y hay a continuación los nombres de muchos trabajadores, que algunos de ellos se encuentran hoy aquí, por los motivos comentados.

“Laugarrena, legegintzaldi berrirako konpromisoa hartzea LEPAk eta egonkortze prozesua amaitu ondoren, udalaren antolamendu azterketa bat egieteko, sail eta lanpostu bakoitzari dagozkion eginkizunak sakon aztertze.

“Cuarto, adquirir el compromiso para la nueva legislatura, una vez que se acabe el proceso de OPEs y estabilización, de realizar un estudio organizativo del ayuntamiento, en el que se estudien en profundidad las funciones relativas a cada departamento y puesto.

“Bosgarrena. Berri ematea dagokionari.

“La última. Dar traslado del presente acuerdo a las personas que corresponda.

“Kontuan izanda, hemen, langileak daudela, suposatzen dut hitza hartu nahiko duzuela. Beraz, zuena da hitza. Horrela planteatzen dut, lehenik azalpenak eman ditugulako. Horrexegatik, komentatzen genuen zuen aldetik hitz egin nahi baduzue lehenago. Baina, bueno, nahi duzuen bezala, guri berdín zaigu.”

Jarrian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Podemos llegar a tener la pequeña esperanza de que le entre la cordura a la corporación, que yo la presuponía como progresista y tal y, que al final, pues bueno, creo que los trabajadores sí que quieren manifestar su disconformidad y, cuando un número de trabajadores quiere dejar tan claro la disconformidad, me parece que un segundo de reflexión sería como mínimo y de duda de lo que están aprobando, sería como mínimo deseable.”

Jarrian, jendaurreko eledunak idatzi bat irakurri du.

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Voy a empezar yo, diciendo algunas de las cosas que ya se dijeron en la comisión el pasado viernes, porque en estos casos conviene también hacer reflexión y poner en situación todas las cosas y sobre todo los tiempos.





“Ya lo comentamos en su momento y, cuando hablan de ustedes todo el tiempo, y se refieren a la parte política, hay una cosa que no han citado en todo el escrito, es que este acuerdo no se ha hecho entre la parte política solo y es un tema bastante importante a decir. Este acuerdo y así se transmitió por parte de todos los partidos políticos, se acordó con el Comité de Empresa, es decir, sus representantes. Una y otra vez nosotros nos hemos reunido con sus representantes que, eran los que iban, en las diferentes fases, proponiendo cosas, sugiriendo, nosotros aceptando algunas, rechazando otras, porque este proceso no ha sido un proceso que ha sido, ni de un mes, ni de dos.

“Creo que es justo e importante decirlo hoy que, cuando ustedes hablan de todas esas cosas que nos apelan y nos dicen, en ningún momento han citado que esto es un acuerdo llevado a cabo también con el Comité de Empresa y, es verdad y así se lo hemos trasladado, la valoración de puestos no se aprueba hoy. La valoración de puestos se aprobó el 30 de junio de 2022 y hubiera sido importante que este escrito que han presentado hoy, que dicen ahora, lo hubieran hecho también entonces, porque, ahí, también hubiera quedado constancia, bueno, yo insisto, como les hemos dicho esta mañana, se lo dijimos en la anterior comisión, nosotros nos hemos reunido en numerosas ocasiones con el comité de empresa y además, si recuerdan, en diciembre se mandó un mail en el que se relacionaba todas las reuniones que se hacían.

“Es importante, desde luego que, teniendo en cuenta esa valoración ya está aprobada ahora no podemos echar atrás, no es tan fácil echar atrás una decisión tomada y, esa valoración, desde el momento en el que se pide que algunos de los sueldos sigan siendo los de antes, conlleva eso.

“Las palabras se pueden disfrazar y se pueden decir como se quiera, pero, hemos estado consultando y esto es lo que se nos tralada. Un momento. Yo termino, nos han pedido que hablemos la parte política y luego ya intervendrán ustedes.

“Es importante, también, cuando las personas hacen recursos, centren bien cuál es la petición que se hace y que es lo que se pide. En ese sentido, en los recursos presentados lo que ha hablado es de que se vuelva a ..., bueno, se desestime pues toda la parte que no corresponde y que a ustedes se les reconozca la parte de valoración que ustedes ya tenían. Eso es importante que se podía haber hecho el recurso en otro sentido y a lo mejor hubiera dado pie a otros debates, pero en este momento es lo que se pide y en ese sentido por seriedad nuestra, eh..., el 30 de junio aprobamos una valoración que, además en las últimas semanas, porque aquí también se pidió, todos ustedes saben que conlleva un montón de cambios en la nómina, el departamento de personal, las últimas semanas ha estado trabajando para reorganizar toda esa nómina y mañana ya ira en ese sentido y con todos los conceptos correspondientes.

“Entiendo también que el resto de partidos políticos querrán ir contestando y hablando al respecto.”

Jarraian, Zulueta jaunak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Zuetako askorekin elkartu izan naiz, Alvarez jauna eta biok eta, egia esan, ez dut gauza berri handirik esango baina, bai behintzat, gauza batzuk testu inguruan jartzeagatik. Guk onartzen dugu guzti honetan dugun ardura, ez diogu inoiz uko egin. Beste batzuekin esan dugun bezala, pues email bidez, gaur egun erantzunkizun parte handi bat, hain zuzen ere, hau hasten delako 2016ean, esango nuke, aurreko agintaldiko 2. urtean edo, lehenengo, 2015eko agintaldian empresa-komitearekin adosten delako bide orri bat eta bide orri horretarako bileren maiztasun trinko bat finkatzen da eta uste dut lau urtez egon ginela komitearekin, bi, hiru astez behin, bilerak eginten eta urratsak ematen norabide ezberdinetan.

“Bide orri bat markatu zen komitearekin adostuta eta udaleko teknikari nagusiek bide orri hori marraztuta, ulertzen duzuten bezala, guk politika egiten dugu eta politika egiteko, gai teknikoak ezagutzea ez da derrigorrezkoa eta justu administrazioko funtzionamenduan ez genuen, gutako inor ez ginelako funtzionarioa.

“Esaten da, udaletxeko langile asko daude izendapenik gabe, lanean, kontratu laborak, ez daude izendatuta, plazarik gabe, ez dakit zer, beraz, RPT berria egin behar da, horrekin batera organigrama berria egin behar da eta, guk esaten dugu, bai, bale, hori egingo dugu eta lanpostu horiek baloratu egingo ditugu. Lanpostu horiek baloratu egingo ditugu eta orduan, komiteak esaten du, ez, balorazio orokorra proposatzen dugu. Zergatik balorazio orokor bat? 2009an egin zelako azken balorazio orokorra eta ez zen oso ona izan, zauriak daude, ez dakit zer, ez dago ondo antolatuta eta orduan guk uste dugu balorazio orokorra egin behar dela eta orduan, guk, parte politikotik, orduan ez zegoen hain garbi ezin zenik



orokorrak egin eta abar, baina, bueno, esaten dugu gu prest gaude, balorazio orokorra egingo dugu.

“Bainan esan genuen, 2015eko agintaldian egingo dugu, RPT berria, organigrama, administratiboen prozesu guztiak, barne promozioak eta guzti hori eta bigarren agintaldian, hau da, honetan, balorazioa egingo dugu.

“Azkenean gauzak azkartu ziren eta horregatik hasi zen balorazioa aurreko agintaldian. RPT berria egin zen, komitearekin adostuta eta onartu zen. Organigrama berria egin zen eta onartu zen. Barne prozesuak egin ziren, ezagutzen duzutena, adostu zen komitearekin, hor ere sekulako iskanbila sortu zen baina uste dut nahiko ondo atera zela eta balorazioa egiteko ordua iritsi zen.

“Balorazioa egiteko orduan jarri ziren bi aukera mahai gainean. Esan genuen, bi aukera daude egiteko, edo egiten dugu barne mailako balorazio bat, osatzen dugu komite tekniko bat baloraziorako edo enpresa baten bidez, lehiaketa bidez aukeratutakoa eta, komiteak berak esan zuen, ufffff....barnekoa oso zaila da, nor jartzen duzu buru, nor jartzen duzu....., goazen enpresa batekin egitera. Plegoak prestatzen dira, plegoak prestatzen dira komitearekin batera.... bueno aurreratu egin naiz.

“Hori izan zen jarri zen lehen baldintza. Kanpoko enpresa batekin egingo da. Bigarren baldintza, komiteak jarritako baldintzak eh...., ateratzen den emaitza onartuko da osotasunean edo ez da onartzen. Ez da lanpostu bakar batean eskua sartuko, termino horiek erabiltzen ziren eta guk erantzun genuen, guk ez dugu eragozpenik hori onartzeko.

“Hirugarren baldintza. Ez dira soldatak jeitsiko eta guk esaten dugu, ados gaude, ez dira soldatak jeitsiko eta orduan, enpresak esaten du onartu behar bada, ez badugu eskua sartuko eta ezin badira soldatak jeitsiko, hori nola egiten da? Eta, komiteak, duela sei urte esaten du, CPTak jarriaz, guk galdetzen dugu zer da hori? Complemento Personal Transitorio, bale, ez dugu ezagutzen. Hori zer da? Nahiz ez zure lanpostuari soldata jaisten den CPT bat jartzen zaizu eta horrekin soldata mantentzen da, joaten gara parte teknikoarengana, orduan, langileriako teknikaria eta idazkariarengana eta esaten diegu, aizue, komiteak hau proposatzen du, bale, bueno, egin daiteke, honela, horrela eta abar.

“Orduan, hori izan zen egin zena, akatsa bat egon zen hor, bueno, badirudi azkenean akatsa dena izan da, baina akatsa bat ez genuen aurreikusi. Zer gertatzen da CPTa ezin zaiene aplikatu? Hori da, gertatzen ari dena Haurreskolan, Musika Eskolan eta abar. Egoera mingarria eta horrela adierazi nahi dugua, sinestu ala ez. Gure iritziz politikoak edo balore politikoak zalantzan jartzen ari direnez, baina, guk, hori egoera mingarri bezala ikusten dugu.

“Martxan jartzen da balorazioa eta agintaldian amaitzen da. 2019ko ekainetik aurrera beste udal gobernu batek kudeatzen du. Gogoratu behar gara, guk hau atera genuenean, atera genuen gehiengoarekin, baina ez, aho batez, hau onartzen du EH Bildu, komitearekin eta Podemos inguruan zeuden bi plataformak eta atxikitu gabeko zinegotziaren babesarekin. Ez zen aho batez izan.

“2019eko ekainetik aurrera, beste lidergo batekin, gauzak beste modu batera kudeatu dira. Kudeatu, kudeatu diren bezala, guk oso kritikoak izan gara eta hori udal gobernuak esan dezake. Zenbat pertsonaleko batzordeetan, balorazio bilera, komitearekin bilera, eskatu ditugu, idatziz eskatu ditugu, martxan jarri dadila. Esaten genuen, gai honi heldu behar diogu, daukagulako, batez ere, retroaktibitatearen ordularia martxan jarraitzen du, akumulatzen ari da eta erabaki behar dutu onatzen dugun, ez dugun onartzen, erabakiak hartu behar dira.

“Nola kudeatu den? Horretan nahiko eztabaida izan ditugu. Orduan, azkenean, gauza ezberdinengatik ematen da ematen den egoera eta, komiteak erabakitzen du edo, eskatzen du onartzea eta guri ere, espreski eskatzen zaigu onartzea. Zergatik? Gurekin hasi zelako prozesua.

“Zalantza guzti horiek esan genituen, aipatu hainbat gauza, udalaren egituraz eta guk ere esaten genuen, ez zitzaigula gustatzen, bainan, estabilizazio prozesuak, jende bati zor zaiona, retroaktibitatea, abar eta abat.

“Orduan, onartzen denean, guk, esaten dugu, onartzen da baina, gutxien-gutxienez saiatu behar gara konpontzen lehen esan duguna, CPTa aplikatu ezin izango zaien lanpostuak, Haurreskolakoak, Musika Eskolakoak, Gizarte Zerbitzuetakoak. Hori uztaileko idatzian negoziatu genuen udal gobernuarekin, badirudi ez dela topatzen modu tekniko eta ez da egin.

“Gutxi, gora, behera, hori da ibilbidea. Helegitearen kontuarekin, guk ulertzen dugu helegiteak daukala





parte nagusi bat teknikoa dena, ni ez naiz gai helegite bat erantzuteko, egon naiteke ados edo ez.

“Helegiteak egiten direnean...., nik gaur hemen gauza batzuk esango ditut askatasun osoz. Helegiteak iristen dira mahai gainera eta ELAko ordezkariak esaten du \_es que vaya recursos, no se puede armar peor un recurso, vaya abogados que contratan\_ eta, gu izan ginen esan genuena, aizu, barkatu, baina hemen jendea oso minduta dago eta gutxienez, kontutan hartu behar dugu, abokatu on bat edo txarra, edo helegite bat ondo edo gaizki armatzea ez dela beraien ardura, beraiek jartzen dute dirua eta kontratu egiten dute.

“Hemen dago sentsibilitate bat eta argi demostratzen diguna prozesu hau ez dela izan guk nahi genuena eta, hemen dagoela zauri bat, egiten da prozesu guzti bat zauria ixteko eta beste bat ireki da eta, gu, konsziente gara horretaz, eta atzera egingo bagenu beste modu batetan egingo genuke, zalantzarik gabe, ez genuke egingo egin dugun bezala.

“Orduan, adosten dugu, gutxienez, 4. puntu hori eta esaten dugu, goazen, balorazioa onartuta dagoenez, helegiteak teknikoki ezin dira onartu, bi bakarrik bai, besteak ez, teknikoki esaten dut, guk ez dugu hori erabakitzen, sartzen dugu 4. puntu bat, konpromisoa hartuz, aho batez hartzen dena, datorren agintaldian, 9 hilabete barru, ikasturte bukaeran, gobernatzen duena gobernatzen duena, gai horri heltzeko eta uzten dituen zauri horiek konpontzeko eta gure ustez, hor ere jerarkizatu behar da.

“Berriro diot, guretzat urgentea da, Haurreskolan sortu den egoera, Musika Eskolan sortzen ari den egoera eta Gizarte Zerbitzuetan langile bati sortu zaion egoera. Zergatik? Dagoelako jende bat galera pairatzen ari dena eta hor bai egon da galera bat eta hor, gure ustez, bai da oso mingarria eta soluzio bat beharrezkoa da.

“CPTari buruz, humilagarriak direla, nik, lehenengo aldiz entzun nuen duela bi hilabete. Zortzi urtez, udaletxe honetan, zortzi urtez CPTa gora eta CPTa bere eta lehenengo aldiz entzun dut humilagarria dela izan da idatzi bat erregistratu zenena.

“Komiteak proposatutakoa da eta orain, bapatean, hori ezin da onartu, baina, guri duela 7 urte, 6 urte, ez dakit zenbait, esan izan baziguten guk CPTak ez ditugu onartuko, guk orduan esango genuen ez dago balorazioarik, baldintza batek, bestea ukatzen du eta iristen zara ez egitera.

“Formarena ere hor dago. Nik ez dakit hemen jendea nola futzionatzen duen. Guk akatsak egiten ditugu, asko eta bidean aipatu ditut egindako akatsa batzuk baino baditugu birtute batzuk eta uste dut garelako alderdi mugimendu serioa eta guk ditugu prozedurak, egitura bat eta gu ez gaude hemen nahi duguna erabakitzeke. Zazpi zinegotzi gaude hemen, atzean mahai politiko bat dugu. 12 lagunekin osatutakoa, bilerak sektorialak dauzkagu eta abart eta niri iritziz, inpresentablea da, gaur goizean ELAko ordezkariak email bat bidaltzea hau esanez:

“Zazpi urte prozesu batean eta sinatu gabeko email bat esanez: Askotan esan dugun moduan, bilatu behar da modu bat CPTak ekiditeko eta soldatak dauden bezala uzteko. Benetan, hau serioa da, hau serioa da, nik uste dut langileak beste ordezkari bat merezi dutela eta nik, hori horrela esaten dut, horrela esaten dut.

“Guk aurrean eduki dugu Komite bat, badirudi orain zatitu egiten dena, badirudi ez duela babesik, badirudi ez duela informatzen eta, esaten dugu, hau ezin da onartu, hau ezin da onartu, zeren lehen egunetik jakin izan banu, ez naiz barku honetan sartzen eta gauzak diren bezala, orduan, gauden bezala gaude, uste dut erronka oso potoloak daudela, uste dut, guk, jokatzen dugula jarrera batekin, guk oposizioarengatik ez duguna inoiz izan, hori mila bider esan dut gai honen inguruan baina, guk, beste erantzunkizun bat dugu, batez ere, 2023ko hauteskundeak eta gero gobernatu nahi dugulako eta ahalik eta egoera bideratuenean ere topatu gauzak eta guk uste dugu estabilizazio prozesu horiek abiatu behar direla, baina, guk konpromezu bat hartzen dugu eta dena onartzen dut, baina konsziente gara zauri bat uzten duela eta konpondu behar dela, baina, hitz egiten denean, de cordura y demás, o sea, nik uste dut, kordura bilatu behar dela horrelako mugimenduak egiten diren eremuetan.

“Guk seriotasunez aritu gara, akatsak egin ditugu, bai, bai, gustatuko litzaizkigukenenak baina askoz gehiago eta denboran atzera egin ahal izango banegu beste modu batean egingo genituzkeela gauzak, baita ere, baina uested dut gauza bakoitza bere planoan jarri behar dela.”

Berriro ere, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa



esateko:

“Lo primero voy a deciros es que, creo que hoy voy a hacer el mayor ejercicio de incoherencia en mucho tiempo. Yo no estoy de acuerdo, creo que ya os lo he expresado pero, es verdad que es un compromiso que lo voy a cumplir. Nuestro grupo va a cumplir con los compromisos adquiridos. Nosotros no estamos de acuerdo con esta valoración. Si hubiera sido por nosotros no lo hubiésemos hecho así, hubiéramos... esto viene de antes y claro, cuando yo me incorporé al ayuntamiento, parte del proceso ya estaba hecho y era como un rodaje que estaba en marcha.

“Ya lo he comentado en la comisión, ya lo he comentado esta mañana. Menos a una comisión he ido a todas las mesas, he procurado estar y siempre, siempre he buscado la opinión, como sindicalista que soy, os lo he dicho, de lo que es la parte sindical, la parte sindical, si que es verdad, con sus más y con sus menos, vamos a negociar esto y tal, siempre ha estado de acuerdo.

“Si esto lo hubiéramos sabido antes, seguramente no estaríamos así, como estamos ahora, pues porque hubiéramos visto, como van a valorar esto, como van a hacer lo otro, entendemos la situación perfectamente. También entendemos que sí que es verdad que podíamos haber dejado los puestos como estaban, sin CPT, pero, la verdad, también se miró y no era posible, entonces, que pensamos? Pensamos que nadie perdiera, voy a decir, ya lo que es, como ya lo dije el otro día, el plus de humillación, de indignidad, todo eso sabemos que no se va a pagar con dinero, pero bueno era una manera de que por lo menos perdieran poder adquisitivo, que siguieran igual.

“Es verdad que se van a dar agravios comparativos, se van a dar, ahora mismo en el proceso de estabilización y os lo he comentado, creo que se van a dar unas circunstancias un poquito raras, porque la gente que va a estabilizarse va a buscar los puestos que mejor estén valorados.

“Va a ser un poco, creo yo, caótico, vamos a contribuir a que la organización todavía sea aún peor. Esta es la valoración que hacemos nosotros, ahora, es verdad que, en este momento que garantía nos da vuestra representación sindical, o sea, si tenemos que seguir negociando, si tenemos que seguir... que garantía tenemos, cual va a ser nuestra interlocución. Cuando estamos hablando con ellos, están de acuerdo, bueno, lo vieron aquí el día de la comisión, no estoy diciendo ninguna mentira, estamos preguntándole si están de acuerdo y luego nos encontramos con esta avalancha, está claro que estamos haciendo algo mal, a lo mejor, yo lo siento, yo también pido perdón, la verdad es que no tengo mucho tiempo, la verdad, tal vez hubiéramos tenido que ir directamente a los trabajadores y trabajadoras pero si renocemos que tenemos un comité y ellos nos están diciendo que bueno, con sus más y menos que, están de acuerdo, pues eso, entonces, es verdad que pacto de sangre o como lo llamen, hemos adquirido un compromiso. A mí, os lo digo de verdad, me es muy difícil cumplirlo, pero, me he comprometido a ello y lo voy a cumplir y, voy a cumplir con una cosa en la que no creo mucho, visto lo visto. Yo si que creía que estaban todos de acuerdo, pero, al ver todo lo que ha sucedido, todos los recursos y todo pues me doy cuenta de que no. Aguas pasadas no mueven molinos, el tema ya está hecho, lo siento muchísimo, de verdad, pero voy a votar que sí.”

Jarraian, Huitzi jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, hasteko esan RPTaren alde bozkatu zuen partido batek esaten badizue orain ez dagoela RPTaren alde, Podemos esan duen bezala, imaginatu zer esango dizuten EAJk edo PSOEk, ez. Ez genuen guk ere ados bozkatu, ez geunden ados hasiera, hasieratik eta, hasiera-hasieratik esan genuen, mila aldiz, RPT hau ezin zuela aurrera jarraitu, ez zeudela ondo baloratzen eta abar eta abar baina momento bat iritsi zen non esaten zitzaigun behar dugu gehiengoa, ez gehiengoa ez, behar dugu denak batera egotea, komitea ados zegoen, komiteak esaten zuen, goazen aurrera, alderdi guztiek esaten zuten goazen aurrera eta estabilizazio begira aurrera egin behar izan genuen.

“Beste alde batetik, Zulueta jaunak egin du resumen bat, historiko guzti honena eta niri gustatuko litzaidake rekalkatzea, laugarren puntuaren garrantzi hori, benetan, iruditzen zaigu, laugarren puntu horrek dela hemendik aurrera egin nahi dugun lana eta hemendik aurrera egin behar den berriro balorazio hori eta berriro egin behar den lan hori,

“Bestalde, jada aprobetxatuz eta jendaurreko eledunari erantzuteko, esan diguzu \_un segundo de reflexión, un segundo no, horas\_ eta, benetan esaten dizut eh... orduak egon dira, sinestu edo ez, eta



jende askori deitu zaio eta jende askorekin hitz egin da, eta ez da erraza gauza batzuk egitea, egin behar direnean eta jende bati esan zitzaizkion gauzak eta ni nago Euskara sailean eta nik ikusten dut egunero zer gertatzen den eta Kultura sailean eta abar eta badakigu zer den eta badakigu egoera zein den eta ez gara egongo %90ekin ados, baina, iritsi gara momentu batera jada sartu behar duguna pizsinara eta gero begiratu ura dagoen eta arriskutsua da, bai eta zuek zarete lehenengoak hau sufritzen baina iruditzen zaigu CPTaren irtenbidea ez dela irtenbide ona baina da aurkitu den irtenbide bakarra, Zulueta jaunak esan duen bezala, 6 urtetan eta besterik egongo balitz entzuteko prest ados gaude eta entzuteko prest gaude, baina, CPTa iruditzen zaigu dela modurik egokiena edo aurrera jarraitzeko.

“Ulertzen dugu langileen ezinegona eta zuekin uste dut asko egon garela, Komitearekin ere bai, biekin, Komitea osatzen duten bi bozeramaileekin eta gure bozka honen aldekoa izango da. Balorazioa onartu genuen ekainean, ostiral honetan egon zen langileria batzordean denak ados geunden honekin aurrera jarraitu behar zela, Komitea ere bai. eta guretzat ere zati handia da eta garrantzitsua eta, guk ere aurrera egingo dugu.”

Jarraian, jendaurreko partaide batek hartu du hitza.

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

